

San Silbestre eta San Garmin



**AINHOA AZURMENDI
ECHEGARAY**
KIROL AHOLKULARIA ETA
EHU-KO IRAKASLEA

Momok (Michael Ende, 1973) alde batetik bestera presaka bizi ziren gizakiei begiratzen zien. Halaber, nik harriduraz so egin diet ere, haren moduan, Karmele Jaiok *Runner* artikuluan deskribatzen duen moduko kronometroa –helmuga ziztu bizian gurutzatu ondoren– gelditu zuten korrikalari lehiakorrei. Arnas estuka makurtuta, eskuekin hankak helduta, gogobetetasuna zen nagusi haien aurpegietan; ez zen baina, azkenekoen artean eskutik helduta sartu zen neska-mutilen kuadrilarena baino asebetetze handiagoa, ez itxuran behintzat.

San Silbestre eta antzeko lasterketen berezko izaera herrikoiairen arrastorik ote dagoen hausnartzen nuen bitartean, herrikoia kontzeptua beraren esanahia-aldaketan erreparatu behar genuela pentsatu nuen. Begi-bistakoa zen han-hemenka zebiltzan kirolariek oso helburu ezberdinak zituztela egun horretan, besteak beste, irabazi, norbere burua frogatu, marka bat hautsi, entrenatu, lagun artean kirola egin, izerditu, partekatu, eta abar. Zalantzarik gabe helburu horiek guztiak errespetagarriak dira, baina zalantzagarria izan daitekeena da, horietako batzuk lasterketa herrikoien kontzeptuarekin bateragarriak ote diren: batetik, lasterketaren helburuetako bat adiskidetasun giroan amaitzen den urteari agur esatea

bada, eta urtez urte herritar gehiagok parte hartu dezaten sustatu nahi bada, arestian deskribatutako irudiak justu kontrako efektua sortu dezakeelako. Eta bestetik, geroz eta gizarte lehiakorragoaren zantzuak proba honetan ere aurkitzeak, ezin bestean, iraganeko herriko kutsua abiadura, presa, marka, denbora eta gailentzea bezalako hitzekin berreraikitzaera eramaten gaituelako.

Slow mountain-a edo mendizaletasun erlaxatua bultzatzeko garrantziaz mintzo da nire lagun bat, lasaitasunez berriketan egin eta paisaiaz gozatzeko. Zergatik ideia hau ez aplikatu herri giroa eta herritarren arteko harremanak sustatzeko hainbat kirol probetan? Lehia kirolaren parte da eta izango da, baina hurrei behin eta berriz esaten diegun moduan geuk ere onartu beharko genuke bizitzako momentu eta kirol esparru ezberdinetan lehiaketak esanahi desberdinak hartzen dituela, eta ez duela zertan lehenetasun izan behar uneoro.

Beraz, erabaki behar dugu lasterketa herrikoiak egiteko moduak definituko gaituen ala geuk definitu nahi dugun lasterketa herrikoiek eduki behar duten esanahia. Ezer egin ezean ziur naiz Momoko gizon grisek haien sareetan harapatuko gaituztela.

Zilbor-hesteak ezin dira horrela eten. ●

Herrenak



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Osasun erakunderen batean irakurri zuen M.-k berezko bi arrisku dituela Gizarte Langintzaren lanbideak: (I) erabiltzaileen edota haien familien zama emozional gehiegizkoa eta (II) erabiltzaileen edota familien balizko erasoak. Hala ere, gidaliburu horretan agertzen ez zen hirugarren kontu bat izan zen lanpostu publikoa uzteko kausa: administrazioak berak eragindako estresa.

Bi hereneko lanaldian hasi zenean osasun mentaleko 90 pertsona inguru (gehi haien familiak) zituen kasu egiteko, eta lana uzteko momentuan, berriz, 140. Bitarte horretan, administrazio publikoak ez zion baliabide espezifikorik

eman eskatzen zitzaion lana egin zezan. Hortaz, erraz uler daiteke pertsona horiek merezi zuten tratua jasotzeko bereetik jarri izan behar zuela M.-k, bere denboratik, bere bizitzatik, baita, azkenik, bere osasunetik ere: duela bi urte, lana utzi baino hilabete pare bat lehenago, lesio bat agertu zitzaion hanka-zolan, eta terapia psikologikoa ere egiten ari da ordutik.

Gero eta argiago ikusten du M.-k. Gero eta hobeki ulertzen du, lan on baten ize- nean, zenbait urtetan berari (ere) gertatua. 2020an sartuta, aspaldiko partez, leunduz doaz arimaren eta hankaren herrenak. ●